

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak norabideak markatu ditu luzatutako aurrekontua gastu sozialera eta ekonomia nahiz enpleguaren sorrerara bideratzeko

Egikaritu ahal izango den gastuaren gailurra 3.384,49 milioi eurokoa da

Miércoles, 09 de enero de 2013

Nafarroako Gobernuak 2012. urtean aurrekontua egikaritzeko norabideak onartu ditu gaurko bilkuran, aurreko urtekoa luzatzen baita. Printzipio horiek dira: gastu sozialari eustea, hau da, Hezkuntzan, Osasunean eta Gizarte Politiketako partidak, kasu horretan bereziki menpekotasunaren arretari lotutakoak; ekonomia suspertzean eragina duten gastu-partidak sustatzea eta enplegua sortzea; eta administrazioaren beraren egitura nahiz funtzionamenduko gastua murriztea.



Nafarroako Jauregiko fatxada.

Horretarako, finantzakoa ez den markatutako gastuaren gailurra 3.384,49 milioi eurokoa da, 2013rako Foru Ogasunak kalkulaturako diru-sarreraren aurreikuspenak ezarritako muga (3.178,75 milioi euro), defizitaren helburua betetzea (131,06 milioi euro) eta kontabilitate nazionaleko doikuntzak (74,68 milioi euro).

Aldiz, finantzako gastua 212,56 milioi eurokoa da. Gainerako zenbatekoa 2012ko aurrekontuko 3.837,7 milioi arte, luzapen-fondo batean sortzen da.

Gastua arloka

Gastuaren zati handiena gizarte-arloetan oinarritzen da: osasuna, hezkuntza eta gizarte-politikak; eta ekonomia, enplegu eta inbertsioko arloak. 2013. urte honetan xahutuko den diru publikoko euro bakoitzeko, aurreikuspena da ia erdia gizarteko oinarritzko zerbitzu publikoak bermatzeko bideratzea. Hala, Osasun (856,6 milioi euro), Hezkuntza (562,1 milioi) eta Gizarte Politika, Kirol eta Gazteria (265,6 milioi) departamentuek gastuaren zati handiena dute, % 49,8arekin 2013an.

Gastuaren bigarren bloke handia suspertze ekonomian eta enpleguan eragina duten departamentuetan oinarritzen da, gastuaren % 41,4arekin. Hala, 322,1 milioi euro esleitu zaio Landa garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuari; 241,2 milioi euro Sustapen

Departamentuari; eta 839,1 milioi Ekonomia, eta Ogasuna, Industria eta Enplegu Departamentuari.

Aldiz, Lehendakaritzako, Justiziako eta Barneko Departamentuak 239,2 milioi euroko aurrekontua kudeatuko du; eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetakoak, 42,4 milioikoa.

Ekitaldi horretarako aurreikusitako gastuak Nafarroako Parlamentuari (15,5 milioi euro) eta Nafarroako Kontseiluari (470.854 euro) emandako diru-kopuruarekin osatzen dira.